

**ZAINZA SISTEMA PUBLIKO  
KOMUNITARIOAREN BIDEAN**

**ZAINZAREN NEGOZIOA DESEGITEN**

2022ko martxoa



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)





## AURKIBIDEA

1. Euskal Herriko zaintza merkatuaren azterketa orokorra. Hainbat datu.....	05
2. Zer da salatzen duguna. ....	08
3. Gure aldarrikapenak.....	08
4. Hurrengo urratsak. Etorkizunari begiratzuz. ....	09



## 1. EUSKAL HERRIKO ZAINZA MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

Zaintza, pertsona helduena zein dependentzia dutenena, enpresa gutxi batzuei izugarriko etekinak ematen dizkien jarduera ekonomikoa bihurtu da bi harmakadetan. Ahoztar Zelaietak *Residencias SA*. *El negocio de los cuidados en Euskal Herria* liburuan dioen moduan, "Si bien la demolición del sector público de las residencias en la CAV comenzó en los 90, el punto de inflexión del proceso privatizador llegó en la siguiente década".

Euskal Herrian joera bereziki nabarmendu da adinekoen egoitzetan. Etxez etxeko laguntza zerbitzua sistematikoki azpikontratatu da EAEn, eta, beraz, enpresa pribatuen esku egon da beti, Erandion eta Bermeon (Bizkaia) edo Lezon, Soraluzen eta Oiartzunen (Gipuzkoa) egindako kudeaketa zuzeneko esperientziaren bat izan ezik.

Araban erabat pribatizatuta dago; Nafarroan, berriz, ia ez dago pribatizaziorik; udal edo mankomunitateetako plantillak dira. Azpimarratzekoak dira Berriozar, Antsoain, Aurrarabia, Zizur, Sakana eta Leitzako mankomunitateak. Iruñean zerbitzua publikatu zen udal enpresa publiko baten sorreraren bidez.

Azpikontratzea, pribatizatzea, kanporatzea edo kudeaketa zuzena ez izateak berebiziko garrantzia du zerbitzuaren eskaintzan, baita zerbitzua jasotzerakoan ere. Langileen lan baldintzak prekarizatu egiten dira (ordutegiak, soldadak, langile kopurua...) eta kalitatea ez da behar beharrezkoa kalitatezko zaintza ziurtatzeko (ratioak, ordezkapenak, bakoitzari eskaintzen zaion denbora...). Lotura zuzena dute bi gauzek, ez dago egoera ulertzeko beste modurik.

Eta atzean, zaintzaren negozioa dago. Gutxi batzuen etekinak eta irabazi gosea pertsona asko eta askoren kontura. Ezin dugu ahaztu zaintza gehiena etxean bertan egiten dela, emakumeek egiten dituztela, musu truk, ikusten ez diren lanak, inolako aitortzarik gabe egiten direnak. Sexuaren arabera eta nazioarteko lan banaketak ezartzen ditu etxean zein lan merkatuan egiten diren zaintza lanak emakumeen lana izateko oinarriak, baita zailenak eta gogorrenak emakume etorkinek betetzeko ere. Horrela ba, dena da posible sistema ekonomikoan zaintza lanek dute aitortza faltagatik.

LABetik zaintza zerbitzuen merkantilizazio prozesu azkar eta basatia salatzen nahi dugu martxoaren 8 honetan. Zaintzaren negozioa salatuko dugu.

# HAINBAT DATU ESANGURATSU<sup>1</sup>

## EAEn

2011 eta 2015 artean, Aldundiek 210 miloi bideratu zituzten egoitza pribatuetara. 2017an, 10 egoitzetatik 7 esku pribatuetan zeuden.

2020a bukatzean, EAEn 314 zahar egoitza zeuden, guztira 20.000 plaza. Hauetatik:

- Bizkaian 155, eta hauetatik 4 besterik ez ziren publikoak.
- Araban 94, eta hauetatik 8 besterik ez ziren publikoak.
- Gipuzkoan 65tik, 16 daude Kabiaren baitan (foru erakunde publikoa).

Guztira, EAEn, titulartasun publikoa ez da %9ra iristen.

314 egoitzetatik 71, sektoreko patronalekoak diren bi elkartetan integratutako bezeroen sare baten parte dira. Sare honetan, EAJko kargu ohien eskutik sortutako edo alderdiko kideentzat ate birakariak dituzten dozenatik gora enpresa pribatu, elkarte edo fundazio daude.

### **Negozia osatzen duten enpresa nagusiak:**

BABESTEN: Egoitz Alai, Katillotxu, Mainatzen, Aztertzen.

URGATZI, EAJrekin lotura duena. Bizkaian etxez etxeko zerbitzuan dagoen monopoliorik handienetakoa.

VITALITAS: estatu espainiarrean sektorean diharduten enpresa handienen artean laugarrena.

**GESCA:** CEBEKen atxikia. EAEn dauden 300tik gora egoitzetatik 42 kudeatzen dituzten. Momentu honetan 27 zahar egoitza (4.823 pertsona), eta 22 eguneko egoitza (3.697 pertsona) barnebiltzen ditu Bizkaian, guztira 4.000 ohe (plaza guztien %34a). 2.600 langilek dute kontratua bertan.

GESCAren baitan daude BABESTEN, URGATZI, IMQ-IGURKO, NAGUSPEA, BIOGER eta OTXARTAGA. DomusVi, Orpea, Vitalitas, Sanitas eta Caser taldeak bertan daude baita ere.

## **BIHARKO**

8 egoitza kudeatzen dituzte Bizkaian: 6 titulartasun publikoa dutenak, gainontzekoak aldundiarekin kontzertatutako plazak. 11 eguneko zentro eta adin txikikoen hainbat egoitza ditu.

## **IMQ-IGURCO**

7 egoitza dituzte EAEn, hauetatik 3 titulartasun publikoa dutenak, gainontzekoak kontzertatutako plazekin.

## **GARBIALDI**

---

<sup>1</sup> Datuok, besteak beste, Txalapartak 2021ean argitaratutako *Residencias SA. El negocio de los cuidados en Euskal Herria*, Ahoztar Zelaietaren liburutik aterata daude.

Bizkaiko Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin zahar egoitzak, eguneko zentroak, etxeko zerbitzuak kudeatzean ditu 2001etik. Baita Ertzaintzaren komisaldegia, EAEko epaitegiak, Osakidetzako ospitale gehienak...

### **GRS, Mondragon taldearen egoitzak**

14 egoitza EAEn, 3 Nafarroan, 11 eguneko egoitza Hego Euskal Herrian. LARES elkartean dago.

## **NAFARROA**

**2010ean**, Nafarroa zen plaza publiko gutxien zuen autonomi elkarteetako bat zen. Guztira, 5.959 plaza zeuden egoitzetan, % 58a pribatuak ziren, eta % 25a kontzertatuak beste egoitza batzuetan. Publikoak % 17 ziren, besterik ez.

11 egoitza besterik ez ziren publikoak (4 dependentzia zuten pertsona helduentzat, 7 ezgaitasunak zituzten pertsonentzat), 1.000 plaza guztien artean. Aldiz, 48 ziren Foru gobernuarekin plaza kontzertatuak zituzten egoitza pribatuak.

**2017an**, Nafarroan zeuden egoitza guztiak hartuta, % 68,6ak titulartasun pribatua zuten (elkarte merkantilak eta irabazi asmorik gabeko elkarteak). Guztira 76 egoitza zeuden, hauetatik 33 ziren publikoak. Egoilarriek zituzten plazak zenbatuz gero, 1.989 ziren publikoak eta aldiz, 4.145 ziren pribatuak.

**Gaur egun:** 2014tik salatu dugu LABetik Nafarroako Gobernuaren politika udal zentroak ekonomikoki itotzea dela, ez dagoela egoitza publikoen sarea eratzeko asmorik, esku pribatuetan utzi dutela Nafarroako pertsona helduen zaintza.

Nafarroako egoitza pribatuen patronalean dauden bi elkarte nagusiak 64 egoitzaren jabe dira, dauden 71 egoitzetatik % 90etik gora beraienak dira.

**ANEA** elkarteak ordezkatzeko dituen irabazi asmoak dituzten herri mailako operadoreen eskutan daude 25 egoitza (Idea, Amma, Solera edo Elizondo, besteak beste), lurraldean asistentziarako dauden plazen erdiaz ari gara.

**LARES** elkarteak (irabazirik gabeko elkarteak ordezkatzeko dituen) 39 egoitza ditu.

**71 egoitza daude Nafarroan, soilik bi dira publikoak.**

### **Enpresa nagusiak zaintzaren negozioan:**

Hedapen handia duten bost pribatuak: Orpea, DomusVi, Ballesol, Sanitas y Amavir

Bertako enpresak: IMQ-Igurco, Idea, Setenasa, Elizondo eta Solera

Negozia 100 miloi eurotakoa da.

## 2. ZER DA SALATZEN DUGUNA

Begibistan da salatzen dugun negozioaren atzean arduradun zuzenak daudela. EAJ dago EAEko hiru aldundietako gobernuan, eta ikaragarria da zaintzekin egin duen negozioa. Lagunak dituen enpresak, bezeroen sareak eta ate birakariak; multinazionaleri eta funts putreei ateak irekitzea. Diru publikoa erabili dute eskubidea behar lukeena zaintzaren negozioa bihurtzeko.

Finantziario publikorik gabe ez dago negozio errentagarririk. Diru publikoa badago, zergatik uzten da zaintza enpresa pribatu eta multinazionalen eskuetan? Merkantilizazioak ez ditu zaintza eskubidea ziurtatzeak suposa dezakeen kostua murriztu, eta ez ditu zerbitzuak hobetu. Bistan da pribatizatzeko arrazoia negozioa dela, inolaz ere zerbitzuaren kostua txikitzea, ezta baliabideen kudeaketa hobetzea.

Beraz, argi esaten dugu: irabaziak daude finantziario publikoarekin sostengatzen den negozio pribatua delako. Errentagarria da zaintza sektoreetako langileen lan baldintzak prekaritzen direlako etekinak lortzeko. Zahar egoitza pribatuetan miloika euro irabazten dituzte diru publikoaren, prekaritatearen eta zaintzaren kalitatearen kontura.

## 3. GURE ALDARRIKAPENAK

Egoera honi buelta eman behar zaio, urgentziazkoa da zaintzaren eta zaintzaileen egoera duina izatea nahi badugu. Zaintzaileen lan baldintzak ezin dira prekarioak izan. Pertsona helduek eskubide osoa dute zaintza duina jasotzeko, kalitatezkoa, merezitakoa. Horrela izango bada, beharrezkoa da:

- Negozioarekin amaitu. Diru publikoa esku pribatuetara bideratzeari utzi.
- Atzera egin pribatizazioaren joeran, zahar egoitzak eta etxez etxeko zerbitzua publikatu instituzio publikoek ahalmena izan dezaten zerbitzuak baldintza egokietan eskaintzen direla ziurtatzeko.
- Zaintza sektoreetako langileen baldintzak hobetu, neurri berean hobetuko delarik zerbitzuaren kalitatea.
- Zaintza zerbitzuetarako aurrekontuak handitu.
- Zaintza eskubidea aitortu. Zaintzarako Euskal Sistema Publiko – Komunitarioa eraikitzeko konpromiso argiak bereganatu datozen udal eta foru hauteskundeetan.



## 4. HURRENGO URRATSAK. ETORKIZUNARI BEGIRA

- Zaintzaren negozioa salatzen eta agerian jartzen jarraituko dugu. Nork irabazten duen, noren kontura, zeintzuk diren ondorioak.
- Etxeko langileak, beti ahaztu egiten direnak, lan ikaragarria egiten dute eskaintzen diren zerbitzuetatik at geratzen direnekin. Ez da bidezkoa zein baldintzetan egiten duten lan, ezin dugu halakorik onartu:
  - Egoera administratiboa erregularizatzea exigitzen dugu.
  - Etxeko langileen hitzarmen baten proposamenean lanean jarraituko dugu.
- Aurrekontuen exekuzioa gardena izan dadila: enpresa pribatuen esku zenbat diru publiko jartzen den jakin nahi dugu. Negozioaren atzean dauden enpresak zeintzuk diren eta norenak diren jakin nahi dugu.

Zaintza negozioaren kontra eta sistema publiko-komunitarioaren alde egingo ditugun urrats berriak iragarri nahi ditugu ere:

- **Martxoaren 8a:** EAEko aldundien eta Nafarroako PSNren aurrean salatuko dugu negozioa eta publikazioa exigituko dugu, hori baita arazoaren konponbidea. Posible da eta urgentziakoa da.
- **Martxoaren 13a:** Zaintza sektoreetako (egoitzak, garbiketa, hezkuntza, etxeko langileak, jangelak, etxez etxeko laguntza, osasungintza, esku hartze soziala...) langileen topaketa egingo dugu aldarrikapenak partekatzeko eta borrokan bat egiteko bideak arakatzeko.
- Martxotik aurrera eman beharreko urrats berriak iragarriko ditugu azken bi urteotan zehar lantzen ari garen etxeko lanen inguruko hitzarmenaz.